



BEIZAMAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

ESP.	2011IPLE0003
ATALA.	IDAZKARITZA
GAIA	EZOHIKO OSOKO BILKURA

**2011-03-25ko EZOHIKO UDALBATZA**

Beizaman, 2011ko martxoaren 25ean, arratsaldeko 18:00etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ezohiko batzarra egin du Udalbatzak, Alkatea Ramón Gerrikagoitia Bengoetxea jauna buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Begonia Garmendia Vazquez andrea, Itziar Arkonada Lizarraga andrea eta Igone Arruti Olazabal andrea eta Luis Javier Oregi Iñurrieta zinegotzia.

Udaleko idazkari kontu-hartzailea, Lierni Muñoz Salaverria haritu da idazkari moduan.

**AZTERGAIK**

- 1.- GAIA: Aurreko akta
- 2.- GAIA: Ur konsortzioan sarrera
- 3.- GAIA: Kutzarekin mailegua baimentzea.
- 4.- GAIA: Gaztainondoko putzuaren jabetza ikertze espedientea abian jartzea.
- 5.- GAIA: Foru Aldundiaren Kontratazio zentralera atxikitzea
- 6.- GAIA: Egurkiren fakturaren bigarren ordainketa berrestea.
- 7.- GAIA: Gizarte segurantzarekin euskeraz harremanak izatearen inguruko mozioa.

Beraz hartu beharreko erabakien azterketari ekiten zaio.

**1.- AZKEN PLENOKO AKTAREN ONARPENA.**

2011/02/18ko aktak aho batez onartu dira, aurrekontuaren onarpenaren atalean kapitulokako laburpena gehitu eta 5. ataleko mozioan adostutako zatia barneratu eta gero.

**2.- UR KONSORTZIOAN SARRERA**

Kontuan harturik dagoeneko udal hau ez dela eskaintzen ari ur zerbitzua, eta Gipuzkoako Ur kontsorzioaren bidez eskaintzen ari dela zerbitzu hori. Osoko bilkurak aho batez honakoa adostu du.

1.- Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren estatutuak osotasunean onartzea eta hasierako argitalpenean alegaziorik tartteratu ezean behin betikotzat onartuta ematea erabaki berririk hartu beharrik gabe.

2.- Gipuzkoako ur kontsorzioaren barnean sartzeko eskaera egitea estatutuen 40. artikulua xedatzen duen bezala.

**3.- KUTXAREKIN MAILEGUA BAIMENTZEA.**

Kontuan harturik udalak 2011ko aurrekontuan azaltzen diren 6 eta 7 kapituluko zenbait gasturi aurre egiteko ezinbestekoa duela 62700 euroko luzerako kreditu bat sinatzea.



BEIZAMAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Kontuan harturik udalak Kutxa entitatearekin negoziazio bat burutu duela kreditu hau sinatzeko, honako proposamena jasoaz:

- Epea 10 urte
- Interesa: Hiruhilabeteko Euriborra + 2,5 %

Kontuan harturik 2011ko ohiko gastuen % 5 gainditzen duela operazio honek eta beraz Foru Aldundiaren baimena beharrezkoa dela .

Osoko Bilkurak honakoa adostu du aho batez:

1.- Kutxa banketxearekin 62.700 euroko mailegua kontratatzeko proiektua onartzea honako baldintzetan:

- Amortizazio epea: 10 urte
- Interes tasa: Hiruhilabeteko Euriborra +2,5
- Ordainketa maiztasuna: Hiruhilabetekoa

2.- Erabaki hau jende aurrean ikusgai jartzea GAO n bitartez, 15 eguneko epean erreklamaziorik aurkeztu nahi izanez gero.

3.- Gipuzkoako Foru Aldundiari baimena eskatzea 11/1989 Foru Arauaren 52 artikulua arabera.

4.- Alkateari baimentzea dagozkion dokumentuak sinatzeko.

**4.- GAZTAINONDOKO PUTZUAREN JABETZA IKERTZE ESPEDIENTEA ABIAN JARTZEA.**

Kontuan harturik udalaren betebeharrak bat dela bere jabetzen ikerketa eta Gaztainondon kokatzen den putzuaren inguruan kontraesanak azaltzen direnez, osoko bilkurak aho batez erabaki du:

Lehena.- Gaztainondon kokatzen den putzuaren jabetzaren ikertze espedientea abian jartzea, dagokion prozedura abian jarriaz.

Bigarena.- Interesatuei honen berri ematea.

**5.- FORU ALDUNDIAREN KONTRATAZIO ZENTRALERA ATXIKITZEA**

Idazkari Kontu-hartzaileak berri eman du matxoaren 24an Foru Aldundiak antolatutako bilerari buruz, kontratazio zentrala abian jartzen duena. Honen arabera zenbait kontratazio prozesu udalak gauzatu beharrean zentral honek burutuko lituzke, lehiaketa osatzen duen diru kopuruak askoz handiagoak izanik, jasotzen diren eskaintzak ere hobetoagoak izango direlakoan. Udalak interesa izan dezakeen lehiaketa bakoitzera atxiki beharko du.

Hori dela eta, osoko bilkurak honako akordioa hartu du aho batez:

1.- Foru Aldundiaren kontratazio zentralera atxikitzea.



BEIZAMAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

2.- Alkateari dagozkion dokumentuak sinatzera baimentzea

3.- Foru Aldundiari erabaki honen berri ematea

**6.- EGURKIREN FAKTURAREN BIGARREN ORDAINKETA BERRESTEA.**

Alkateak berri eman du Egurkik Antsosoro eta Alberdi baserrien bideen konponketari dagokion fakturaren bigarren eta azken zatiaren ordainketa dagoeneko burutu dela. Hori dela eta Osoko bilkurak aho batez erabaki du ordainketa hori berrestea.

**7.- GIZARTE SEGURANTZAREKIN EUSKERAZ HARREMANAK IZATEAREN INGURUKO MOZIOA.**

Zinegotziek aho batez onartu dute UEMAK proposaturiko mozioa, gizarte segurantzarekin euskaraz harremanak izatearen eskubidearen ingurukoa, honako edukiarekin:

- Hizkuntz alorrean dauden lege guztiak betez eta betearaziz; Gizarte Segurantzak ez dezala baztertu euskaraz edo tokian tokiko berezko hizkuntzetan lan egiteko erabakia hartu duen erakunde publikorik, eta onar dezala gaztelania ez beste hizkuntzak erabiltzea Gizarte Segurantzarekiko idatzizko harremanetan.
- Bigarrenik, RED sistemari dagokionez, Gizarte Segurantzak RED sistema ahalik eta lasterren euskaraz erabiltzeko aukera eman dezan, gaztelania ez beste hizkuntza batean lan egiteagatik aparteko lanik edo ezelango zigorrik jaso behar izan gabe.

Ez da aipamen berezirik izan eta Osoko bilkura, 18:30etan eman du amaitutzat Alkateak eta bertan azaldutakoa jaso gera dadin honakoa sinatzen dut.

Beizaman, 2011ko martxoaren 25ean

Lierni Muñoa Salaverria  
Idazkari Kontu-hartzailea